



## TXOSTEN METEOROLOGIKOA – UDABERRIA 2019

Udaberria, prezipitazioari dagokionez, ohikoa izan zen kantauri isurialdearen ekialdean eta lehorra edo oso lehorra gainerakoan. Batez besteko tenperatura ohikoa izan zen kantauri isurialdearen ekialdean eta Arabako Errioxan, gainerakoan hotza. Muturreko meteorologiari dagokionez, gertaerak ez ziren korapilatsuak izan. Abisu horiak baino ez ziren igorri, hala ere, zergatiak ezberdinak izan ziren; gehienak olatuen altueragatik nabigaziorako eta haizeagatik izan ziren. Martxoan azpimarragarriak izan ziren baso-suteak. Maiatzean, hilaren 6a nabarmendu zen, maiatzean inoiz neurtu diren tenperatura baxuenak neurtu baitziren EAEn barnealdeko estazioetan.

### Prezipitazioa

Prezipitazioari dagokionez udaberria EAEn ohikoa izan zen kantauri isurialdearen ekialdean eta lehorra edo oso lehorra gainerakoan. Prezipitazioa Gipuzkoa ekialdean baino ez zen batezbestekotik gertu egon. Pilatutako kantitateen arabera, argi eta garbi nabarmentzen da Eskaseko estazioa, 711.5 mm-rekin. Inguruko estazioetan 500 mm-ren muga gainditu zen (Añarbe 569.9 mm, Ameraun 502.3 mm) eta barnealderago dauden estazioetan, 300-400 mm inguruan geratu ziren (Ereñozu 375.6 mm, Bidania 356.6 mm, Andoain 323 mm). Isurialdeen banalerroan 300 mm baino gutxiago jaso ziren (Otxandio 289.7 mm, Urkiola 281.2, Zegama 255 mm). Araban jasotako kantitateak toki askotan ez ziren 150 mm-ra iritsi (Abetxuko 148.2 mm, Espejo 133.4 mm, Alegría 129.9), eta bereziki Araba hegoaldean 100 mm-tik beherakoak izan ziren (Moreda 75.6 mm).

Kalifikazio hori martxoa eta apirila lehorrak edo oso lehorrak eta maiatza ohikoa edo lehorra izan zirelako irten da.

Martxoan euri-egunak hilaren 6tik 20ra bitartean kontzentratu ziren. Denboraldi horretan kantauri isurialdean 10 inguru izan ziren, gutxi gorabehera ohiko balioa. Mediterraneo isurialdean dezente gutxiago zenbatu ziren, 2 eta 6 artean, espero daitekeena baino 3 egun gutxiago. Euri-egun haietan prezipitazioa ez zen oso ugaria izan, hau da, 30 mm-tik gorakoa. Balio altuena Aizarnazabalen jaso zen, 23.4 mm hilaren 8an. Hala ere, egun euritsuena hilaren 19a izan zen. Neurtutako kantitateak oso ezberdinak izan ziren, baina nekez gainditu zuten 20 mm-ren muga kantauri isurialdean.

Apirilean, lau egunetan egin zuen prezipitazio oso ugaria, ozta-ozta gainditu zen 30 mm-ren muga. Hilaren 15a izan zen, argi eta garbi, egunik euritsuena EAEn apirilean. Kantauriko bailaretan, 20 mm baino gehiago pilatu ziren, eta



Gipuzkoa barnealdeko toki gutxi batzuetan 40 mm-ra iritsi ziren (Aitzu 41.1 mm, Urkulu 39.5 mm, Oñati 29.3 mm, Añarbe 28.9 mm). Horrez gain, kantauri isurialdearen barnealdeko zenbait tokitan zaparrada handiak bota zituen (Urkulu 28.3 mm/h, Aitzu 26.5 mm/h, Cerroja 21.1 mm/h, Areta 20.3 mm/h, Gardea 19.6 mm/h, Orozko 18.6 mm/h, Oñati 17.7 mm/h).

Maiatzean kostaldean euri-egunak 12 eta 15 artekoak izan ziren, ohikoa dena baino baten bat gehiago; Arabako Lautadan 10 inguru, batezbestekoaren inguruan; Arabako Errioxan soilik 5, espero daitekeenaren ia erdia. Prezipitazio gertaerei dagokienez, bi bereizten dira. Lehenengoa hilaren 16an gauean eta 17ko lehenengo orduetan gertatu zena eta, bigarrena, hilaren 18ko gauean eta 19ko egunaren lehen zatian izandakoa. Azken hartan jaso ziren udaberriko gertaeren artean ur kantitate esanguratsuenak. Euriaren iraunkortasunaren ondorioz, prezipitazio handia egin zuen, bai hilaren 18an azken orduetan (17.4 mm/h Eskasen, 15.3 mm/h Oiartzunen), baita hilaren 19an, egunaren lehen zatian ere (berriro Oiartzun, 18.3 mm/h eta Eskas, 17.7 mm/h). Gipuzkoa ipar-ekialdean, 24 orduan 100 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas, 162.2 mm; Añarbe, 129.9 mm; Oiartzun, 127.7 mm; Miramon, 103.7 mm) eta, ondorioz, ibaiak hazi egin ziren. Urumea, Oiartzun eta Bidasoako arroetan maila laranja gainditu zuten.

Elurrari dagokionez, martxoaren 19an kota ertainetan eta altuetan egin zuen elurra (elur-kota 800-1000 m inguruan egon zen). Apirilean, nabarmentzekoa da hilaren 3ko gauean eta hurrengo goizaldean jazotako elurte berantiarra, elur-kota 500-600 m-ra jaitsi zen. Maiatzean, hilaren 18ko eta 19ko gertaeran, elurtea oparoa izan zen Belaguako iraupen eskiko estazioan (1600 m inguruan).

**1 Taula. Azken urteetan udaberriari pilotutako prezipitazioa Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
<b>Deusto</b>	165.3	267.0	210.6	288.6	235.7	192.9	318.3	290.4	161.2	145.6
<b>Lasarte</b>	363.6	444.3	307.0	405.8	359.9	383.3	483.7	394.9	268.8	228.9
<b>Arrasate</b>	280.6	427.3	258.2	491.3	332.3	412.2	503	367.7	282.2	205.4
<b>Abetxuko</b>	148.2	273.2	102.4	174.8	142.9	205.8	236.4	177.1	171.5	120
<b>Párganos</b>	104.1	188.1	78.8	133.4	89.3	124	189.2	109.5	151	63.1

## Temperatura

Batez besteko tenperatura ohikoa izan zen kantauri isurialdearen ekialdean eta Arabako Errioxan, eta gainerakoan hotza. Hala ere, oro har, batezbesteko



balioetatik gertu egon ziren. Izan ere, EAE osoa kontuan izanik, batezbestekoan ia ez dago alderik.

Hilabeteen kalifikazioen artean denetarik egon zen. Martxoa beroa izan zen, apirila ohikoa eta beroa artekoa, eta maiatza oso hotza (Arabako Errioxan izan ezik, bertan hotza izan zen).

Tenperatura baxuenak apirilaren 13an neurtu ziren. Izotz handia egin zuen toki askotan, gaueko irradiazioak eraginda, eta inbertsio termiko handiak izan ziren (Iturrieta -6.6 °C, Pagoeta -5.3 °C, Subijana -5 °C, Navarrete -4.7 °C, Salvatierra -4.6 °C, Sarria -4.6 °C). Maiatzean, izotz berantiarra egin zuen, urteko sasoi honetan ez dira horrelakoak sarritan gertatzen (izotz puntura gerturatu ziren egunak kontuan izan gabe). Horrela, adibidez, Arabako hiriburuan 2 aldiz egin zuen izotza, eta batezbesteko klimatologikoa maiatzean 0.4 egunekoa da. Azpimarragarria izan zen hilaren 6a, mediterraneo isurialdeko toki askotan egin zuen izotza. Egun hartan, maiatzean inoiz neurtutako tenperatura baxuenak neurtu ziren EAeren barnealdeko hainbat estazioan, eta Araba erdialdeko zenbait lekutan izotz handia egin zuen (Iturrieta, -4.6 °C, Salvatierra -3.5 °C, Trebiño -3.4 °C, Pagoeta -3.3 °C, Albaina -3.2 °C, Navarrete -3.2 °C). Sasoi honetan izotza egitea ezohikoa den zonaldean egin zuen, adibidez Arabako Errioxan (Páganos 0 °C), eta kantauri isurialdean (Berastegi -0.8 °C, Balmaseda -0.6 °C, Arrasate -0.1 °C, Saratxo -0.1 °C).

Tenperatura maximoiei dagokienez, martxoaren 16an, 30 °C-ra hurbildu ziren kantauriko bailaretako zenbait tokitan (Eitzaga 29.8 °C, Ibai Eder 29.3 °C, Alegia 29 °C). Hala ere, egun beroenak maiatzaren bukaeran izan ziren, baina ozta-ozta gaintitu ziren 2 hilabete lehenago neurtutako balioak. Hilaren 31n, 30 °C-ren muga gaintitu zen barnealdeko estazio askotan, eta Saratxon 32.5 °C neurtu ziren; Abetxukon ere gaintitu zen muga hori, 30.9 °C.

Hileko kalifikazioek, hots, urtaroaren hasiera beroa eta bukaera hotza, intsolazioa ohi baino altuagoa izatea eragin zuten, batezbestekoa baino ia %20 altuagoa izan zen.

**Taula 2: Udaberrian, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010
<b>Deusto</b>	13.5	13.4	14.1	13.6	14.3	13.9	12.8	13.6	15.5	13.6
<b>Lasarte</b>	12.1	13.1	13.6	12.4	13.0	12.9	11.9	12.7	14.7	12.8
<b>Arrasate</b>	10.7	11.2	12.7	10.4	11.8	11.5	9.7	11.1	12.9	10.6
<b>Abetxuko</b>	10.1	10.3	11.9	9.8	11.4	11.2	9.4	10.5	12.1	10.5
<b>Páganos</b>	10.9	10.6	13.2	10.2	12.3	11.9	9.7	11.5	12.8	10.8








## Udaberriko oinarrizko datu estatistikoak

**Taula 3: Udaberriko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m <sup>2</sup>	Egun batean pilatutako auri max. l/m <sup>2</sup>	Euri- egunak.
<b>Deusto</b>	13.5	17.8	29.2	9.6	4.9	0	165.3	14.1	32
<b>Lasarte</b>	12.1	16.8	26.0	7.7	2.2	0	363.6	48.7	42
<b>Arrasate</b>	10.7	17.1	29.8	5.2	-0.7	3	280.6	45.3	40
<b>Abetxuko</b>	10.1	17.2	30.9	3.6	-2.4	14	148.2	20.6	31
<b>Párganos</b>	10.9	17.3	29.1	5.1	-1.3	4	104.1	17.1	17



## Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




■ Pilatutako prezipitazioa  
 ● Temperatura minimoa  
 — Batez besteko temperatura  
 ■ Temperatura maximoa




## Prezipitazioaren jokaera


**Behatutako prezipitazioa**  
*Precipitación observada*




**Prezipitazio normala**  
*Precipitación normal*



**Prezipitazio normalarekiko desbideratzea**  
*Desviación respecto a la precipitación normal*



**Prezipitazio normalarekiko portzentaia**  
*Porcentaje respecto a la precipitación normal*





## Muturreko egoerak

**Udaberrian 30 abisu hori igorri ziren: 1 prezipitazio iraunkorragatik, 2 prezipitazio handiagatik, 4 elurragatik, 4 haizeagatik haizeguneetan, 2 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan, 10 olatuengatik nabigaziorako, 1 kostaldeko kalteengatik, 2 izotzagatik, 1 enbatagatik, eta 3 baso-sute arriskuagatik.**

Ondoren gertaera azpimarragarrien zerrenda bat aurkezten da:

### Martxoa

- Hilaren 3an, Britainiar uharteen iparraldean zegoen depresio batek hegomendebaldeko haize gogorra eragin zuen, eta batez ere Bizkaiko mendietan nabaritu zen, egunaren bigarren zatian (Cerroja 126.6 km/h, Orduña 113.9 km/h, La Garbea 109 km/h, Unzueta 103.4 km/h). Egun amaieran haizea indartu egin zen Arabako eta Gipuzkoa barnealdeko zenbait tokitan (Ordizia 87.8 km/h, Zegama 84.7 km/h). 850 hPa-eko mailan, Iberiar penintsulan aire masa bero bat zabaldu zen eta arratsaldean tenperatura 10-12 °C ingurukoa izan zen. Tenperatura altuak neurtu ziren egunez eta hezetasuna txikia izan zen, hortaz, baso-suteak izateko baldintza aproposak. Arratsaldean hainbat tokitan sua piztu zen, bereziki Enkarterrietan. Esanguratsuen Muskizen gertatutako sutea izan zen. Hilaren 4ko goizaldean, haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen eta indarra galdu zuen.

Estazioa	Hilak 3 km/h
Cerroja	126.6
Orduña	113.9
La Garbea	109
Punta Galea	108
Unzueta	103.4
Igorre	93.8
Ordunte	91.7
Ordizia	87.8
Deusto	86.4
Zegama	84.7
Galindo	83.5

*Igandea, hilak 3: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 10etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 18etatik 24etara ordu lokala.*

- Hilaren 5ean eta 6an, beste depresio bat hasieran Britainiar uharteen hegomendebaldean kokatu zen eta gero Ipar itsasora mugitu zen. Hegomendebaldeko haizea ibili zen eta hilaren 5ean 90-100 km/h-ko boladak



izan ziren ipar-mendebaldeko haizeguneetan (Orduña, 109 km/h, La Garbea 100.5 km/h). Hilaren 6an gainerako tokietan ere indartu egin zen, batez ere Araban (Gasteiz nabarmendu zen, 114.3 km/h). Horrez gain, tenperatura altuak neurtu ziren, izan ere Kantaurira aire masa bero bat iritsi zen. Hilaren 6an tenperatura 10 °C ingurura iritsi zen 850 hPa-eko mailan. Balio maximoak 20 °C ingurukoak izan ziren kantauri isurialdeko toki gehienetan. Sute ugari izan ziren, bereziki Bizkaian.

Estazioa	Hilak 6 km/h
Orduña	117.5
Unzueta	117.1
Kapildui	116.4
Gasteiz	114.3
Oiz	112.5
Cerroja	110.1
Herrera	106.2
Jaizkibel	104.8
Punta Galea	103
La Garbea	101.3
Iurreta	101.3
Ordizia	100.9

*Asteartea, hilak 5: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 10etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 18etatik 24etara ordu lokala.*

*Asteazkena, hilak 6: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 21etara ordu lokala.*

- Hilaren 17an, arratsalde-gauean, Kantauri itsasotik aire masa hotz bat sartu zen eta tenperaturak behera egin zuen. Hilaren 18an, tenperatura 850 hPa-eko mailan -2 °C ingurukoa izan zen eta hilaren 19an 0 °C azpitik egon zen. Hasieran zaparrada txikiak bota zituen kantauri isurialdean, baina hilaren 18ko goizaldean areagotu eta mediterraneo isurialdera zabaldu ziren. Egun hartan prezipitazioak batez ere Bizkaia erdialdean eta isurialdeen banalerroaren erdian izan zuen eragina (Igorre, 16.7 mm). Elurra kota ertainetan eta altuetan egin zuen (elur-kota 800-1000 m inguruan egon zen). Hilaren 19an, prezipitazioa kantauri isurialde osoan egin zuen (Arboleda, 19.9 mm) eta elur-kota 1000 m inguruan egon zen. Hilaren 20an, goizean goiz, elur-kota 1000 m-tik gora igo zen.

*Astelehena, hilak 18: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.*

*Asteartea, hilak 19: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.*





## Apirila

- Hilaren 3an, asteazkena, eta hilaren 4an, osteguna, Ipar Atlantikoan antizikloi zabal bat kokatu zen eta Britainiar uharteetan depresio bat. Goi-geruzetan depresio bat askatu zen Bizkaiko Golkoan (tenperatura -30 °C baino baxuagoa izan zen Kantauri itsasoaren ekialdean), eta ezegonkortasun nabarmena eragin zuen, bereziki Bizkaiko Golkoaren ekialdean. Altueran askatutako depresio horrekin batera, maila ertainetan aire masa hotz bat sartu zen eta tenperatura -3 °C-ra jaitsi zen hilaren 4an, ostegunean, goizean goiz. Hilaren 3an, prezipitazio txikia egin zuen Araban eta txiki-ertaina kantauri isurialdean, hala ere, prezipitazioa ez zen oso ugaria izan. Egunak aurrera egin ahala elur-kota jaisten joan zen eta gauean 500-600-m-ra egon zen. Hilaren 4an, egunsentian, oraindik elur txikia egin zuen zenbait tokitan 500-600 m-ra, baina goizeko lehen orduetan elur-kota azkar igo zen eta aurreko gauean maila ertainetan pilatutako elur guztia urtu egin zen, udaberrian ohikoa den bezala. Horrez gain, goizetik aurrera, atertzera egin zuen, batez ere barnealdean.

*Asteazkena, hilak 3: Abisu Horia elurragatik barnealdean 12etatik 24etara ordu lokala.*

*Osteguna, hilak 4: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 06etara ordu lokala.*

- Hilaren 12an, 850 hPa-eko mailan tenperatura 0° ingurukoa izan zen, zerua hodei gutxirekin edo oskarbi geratu zen arratsalde-gauean, eta horrela jarraitu zuen hilaren 13ko goizaldean. Horrez gain, iberiar penintsulan gau hartan aintzira barometrikoa nagusitu zen, hortaz, haizea ahul eta aldakor ibili zen. Horrela, Arabako toki gehienetan eta Bizkaia eta Gipuzkoa barnealdeko zenbait tokitan izotz txikia egin zuen, eta Arabako mendi inguruetan handia. Hauetariko tenperatura minimo batzuk, serie klimatologikoetan jasotako artean, baxuenak dira.

Estazioa	Tmin (°C)
Iturrieta	-6.6
Pagoeta	-5.3
Subijana	-5
Navarrete	-4.7
Salvatierra	-4.6
Sarria	-4.6
Trebiño	-4.5
Albaina	-4.4
Tobillas	-4.1
Arkauti	-4
Otxandio	-2.3
Abetxuko	-2.1
Beluntza	-1.6



Larunbata, hilak 13: Abisu Horia muturreko temperatura baxuak/izotzagatik barnealdean 00etatik 10etara ordu lokala.

## Maiatza

- Hilaren 5ean Europa mendebaldean aire masa hotz bat kokatu zen eta Kantauri itsasoaren ekialdera 0 °C-ko isoterma iritsi zen. Hilaren 6ko goizaldean zerua ia erabat garbi geratu zen eta temperatura azkar jaitsi zen. Mediterraneo isurialdeko toki gehienetan izotza egin zuen. EAE barnealdeko hainbat estaziotan maiatzean inoiz neurtutako temperatura baxuenak neurtu ziren. Araba erdialdeko zenbait zonaldeetan izotz handia egin zuen. Sasoi honetan izotza egitea zaila den tokietan ere egin zuen, esaterako Arabako Errioxan eta kantauri isurialdean.

Estazioa	Hilak 6
	Tmin (°C)
Iturrieta	-4.6
Roitegi	-3.5
Salvatierra	-3.5
Trebiño	-3.4
Pagoeta	-3.3
Navarrete	-3.2
Albaina	-3.2
Abetxuko	-1.8
Berastegi	-0.8
Balmaseda	-0.6
Arrasate	-0.1
Saratxo	-0.1
Páganos	0

- Hilaren 16an Iberiar penintsulan depresio bat sakondu zen eta egun amaieran penintsularen ipar-ekialdean kokatu zen. Hari loturiko fronte okluito bat Kantauri itsasoaren ekialdean kokatu zen hilaren 16ko azken orduetan eta 17ko goizeko lehen orduetan. Goi-geruzetan, aska bat penintsularen iparraldean zabaldu zen eta egun horietan ezegonkortasuna handia izan zen. Hilaren 16an, gauean, zaparrada txiki-ertainak bota zituen (mardulenek 9 mm utzi zituzten ordubeteen). Hilaren 17an, egunaren lehen zatian, zaparrada mardulak botatzen jarraitu zuen, baina ez ziren handiak izan (Berna, 12.5 mm ordubeteen, Eskas 12.2 mm ordubeteen, Aixola, 10.2 mm ordubeteen) eta ekaitz bakan batzuk izan ziren, bereziki ekialdean. Zaparradekin batera, mendebal/ipar-mendebaldeko haize-bolada oso



gogorrak izan ziren (Cerroja, 106.9 km/h hilaren 17an, goizean goiz). Hilaren 17an, arratsalde-gauean, prezipitazioa nabarmen urritu zen. Prezipitazioa ez zen handia izan, baina zenbait tokitan 60 mm baino gehiago pilatu ziren 24 orduan.

Estazioa	Hilak 16 mm ordubete
----------	-------------------------

Herrera	9.5
Otxandio	9.3
Gorbea	9

Estazioa	Hilak 17 mm ordubete
----------	-------------------------

Berna	12.5
Eskas	12.2
Aixola	10.2

Estazioa	Hilak 17 eta 18 Mm 24 ordu (18etatik UTC 18etara UTC)
----------	--

Eskas	70.9
Arrasate	58.5
Urkiola	57.7
San Prudentzio	57.4
Otxandio	55.9

*Osteguna, hilak 16: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 21etatik 24etara ordu lokala.  
Ostirala, hilak 17: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 00etatik 12etara ordu lokala.*

- Hilaren 18ko azken orduetan, eta hilaren 19an egunaren lehen zatian, goigeruzetan askaturiko depresio bat lurraldearen ipar-ekialdean kokatu zen eta lurrazalean fronte okluidu bat ia geldikor egon zen. Ondorioz, prezipitazio iraunkorra egin zuen eta kantauri isurialdeko zenbait tokitan oso ugaria izan zen, batez ere Gipuzkoa ekialdean (Donostialdean eta Bidasoa Behean) eta Bizkaia ekialdean (Busturialdean). Pilatutako prezipitazioaren ondorioz, Jaizubiako ubidean, Bidasoako arroan, ibaiak puntualki gainezka egin zuen. Gainera, euriaren intentsitatearen ondorioz, uholde txiki batzuk eta lurjausi batzuk gertatu ziren Gipuzkoa ekialdean. Zonalde horretan larrialdietako zerbitzuek arreta berezia jarri behar izan zuten.

Estazioa	Hilak 18 mm ordubete
----------	-------------------------

Eskas	17.4
Oiartzun	15.3
Añarbe	13.7



Estazioa	Hilak 19 mm ordubetea
Oiartzun	18.3
Eskas	17.7
Añarbe	13.3

Estazioa	Hilak 18 eta 19 mm 24 orduan (13etatik UTC 13etara UTC)
Eskas	162.2
Añarbe	129.9
Oiartzun	127.7
Miramón	103.7
Ameraun	96.8
Lasarte	75.6
Muxika	51.6

*Larunbata, hilak 18: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 15etatik 24etara ordu lokala.*

*Igandea, hilak 19: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 15etara ordu lokala.*



## Terminologia

*Batez besteko temperatura:* hileko batez besteko temperatura.

- *Temperatura maximoa:* eguneko temperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura maximo absolutua:* hileko temperaturarik altuena.
- *Temperatura minimoa:* eguneko temperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura minimo absolutua:* hileko temperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, temperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak  $\geq 1$  mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

*Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat beroa:* temperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:*  $f < \%20$ . temperatura, urterik beroenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . temperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso hotza:*  $f \geq \%80$ . temperatura, urterik hotzenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* temperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

*Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:*

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea*  $f < \%20$ . prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:*  $\%20 \leq f < \%40$ .
- *Ohikoa:*  $\%40 \leq f < \%60$ . prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:*  $\%60 \leq f < \%80$ .
- *Oso lehorra:*  $f \geq \%80$ . prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen  $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

[http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual\\_estilo/eu\\_9900/eu\\_manual.html](http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html)

**OHARRA:** txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.